

# txintxarri



## Lasarte-Oria Bai! Krosa, kirol festa handia

Mila bat korrikalarik, ia 60 patinatzailek eta ehunka haur eta gaztek gozatu dute lasterketaz / 5-12

TXINTXARRI

## Bost urte oholza gainean

Urteurren emanaldi ederra eskaini dute SuBerri akordeoi taldeak eta bere lagunek / 2

Aldundiaren murrizketen aurka, TSSTko langileek herritarrei dei egin diete mobilizatzerara / 4

Areto-futboleko Trumoi Eguzki taldea pozik dago egindako lanarekin, etxean 2-5 galdu arren / 5



### ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51



## Josue Igeltseritza S.L.

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28  
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

### Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa



# Oholtza gainetik itzali ditu bost kandelak

Bost urte daramatza SuBerri Akordeoi taldeak musikaz gozaten. Larunbat arratsaldean ospatu zuten 'urtebetetze festa', Manuel Lekuona kultur etxean. Oholtza gainetik itzali zituen kandelak, eskusoinuen hauspoei eraginez

## Iñigo Gonzalez

SuBerri bost urte bete ditu, eta horrelakoetan egin ohi denez, urtebetetze festa ederra antolatu zuen joan den larunbatean. Kandelak oholtza gainetik itzali zituzten taldeko kideek, eskusoinuen hauspoei gogotsu eraginez. Eta ez zuten bosgarren urtemuga bakarrik ospatu, gonbidatu ugari etorri ziren festara: Kukuka Antzerki eta Dantza taldea, Semblante Andaluz, Erketz EDT, Alboka abesbatza, Amaia Gonzalez Caballero dantzaria eta ikasleak... Ez ahazteko modukoa izan zen ospakizuna. Gutxienez beste bost urtez aritzeko adina indar hartu ditu SuBerri.

Erketz EDTko dantzariak aureskua dantzatu zieten SuBerrikoiei. Aitortza xume baina polit horrekin ireki zuten emanaldia. Ondoren, jazz doinuak taularatu zituen Elias Goikouriak maisuki zuzendutako musikari taldeak. Hori izan zen oholtza gainean bakarrik egon ziren une bakarretako bat, segituan hasi baitziren herriko elkarteak parte hartzen. Hilabete luzez aritu dira entseatzen, eta



SuBerri urteurrena ospatzeko emandako kontzertua. TXINTXARRI

larunbatean taularatu zuten landutako guztia. Ederki, gainera.

Amaia Gonzalez Caballero dantzaria eta ikasleak igo ziren aurrena. Hainbat areto-dantza oholtzaratu eta gero, urrezko bikotearen txanda iritsi zen: Amaia Gonzalez eta Jose Mari Orbegozo. Aho zabalik utzi zituzten auditorioa goraino bete zuten ikusleek. Gonzalezek eta hainbat ikaslek oso-oso

ezaguna den kantu bat ere ekarri zuten kultur etxera: Coldplay taldearen *Viva la vida*.

Erketz EDTko dantzari trebeek ere ikuskizun ederra eskaini zuten, ohi bezala. Eta, Euskal Herriko dantza eta doinuetatik, Andaluziakoetara: Zambrako kideak oholtzaz oholtza dabiltza azkenaldian, eta larunbatean ere hartu zuten parte. Pare bat koreografia taularatu, eta are gehiago bete zen oholtza gero:

Semblante Rociero koruko kideak sartu ziren, Jose Perez Semblante Andaluz elkartearen lehendakaria barne. Buruko isuri bat tarteko, hainbat aste eman ditu osatzen, baina honezkero indarberritu da. Albiste bikaina, zalantzarik gabe.

## Alboka, Ramon Irizar, Kukuka...

Tarteki bat sartu du kazetariak kronikan, apropos. Testuari (eta irakurleari) arnas apur bat hartzeko aukera eman nahi izan dio. Larunbateko emanaldian ez zen egon tartekirik, ordea. Ez zen egon atsedenaldirik. Ordubete baino gehiago erritmo bizi-bizian, emanaldi bat bestearen atzetik, zein baino zein ikusgarriagoa. Bost urte ez dira egunero betetzen, eta SuBerrikoek (eta parte-hartzaile guztiek ere bai, jakina) hasieratik erakutsi zuten den-dena taula gainean uzteko prest zeudela. Hala izan da.

Alboka abesbatzako kideek ukitu berezia (eta gorri kolorekoa) eman zioten Barre *egiri nahi dugu* abestiarekin. Sudur gorriak jantzi, eta irribarretsu abestu zuten, gustura. Euren ahots kordekin jolasten ari balira bezala. Jolasten du baita ere, eta oso ondo, Ramon Irizarrek, saxofoiarekin. SuBerriko kideen eskusoinuekin ederki koordinatu zen musikaria.

Lasarte-Oriako kultur gintzan hondar aletxo ugari jartzen darama Kukukak urteotan, eta gaurko ospakizun emanaldian ere egon da presente. Txaloak eta irrintziak ekarri gura

zituzten auditoriora, eta lortu zuten, arratsaldeari freskotasan puntua emanez.

Eta, bukatzeko, SuBerriko abesti mitiko bat oholtzaratu zuen: Queen taldearen *Bohemian Rhapsody*.

## Eskertza...eta sorpresa!

Emanaldia hasi eta ordubete pasatxora bukatu ziren musika eta dantza emanaldiak. Arestian esan bezala, ia atsedetik hartu gabe, bizkor-bizkor. Eskertzen txanda iritsi zenean jaitzi zen erritmoa. SuBerriko kideek hartu zuten hitza, eta eskerrak eman zizkieten Lasarte-Oriako Udalarari, Kultura Batzordeari bereziki (eta Juantxi Ugarte teknikariari). Horrez gain, Iñaki Bereziartua musika denda (Elgoibar) nabarmendu zuten, gaurko emanaldirako musika-tresnak uzteagatik.

Bazirudien horrela bukatuko zela urtebetetze-festa, baina ez. Izan ere, zer nolako urtebetetze festa izango litzateke opari edo sorpresa atsegini ez balego? Larunbatekoa ez zen izan salbuespena: SuBerriko kide batzuek bertso polita abestu zioten Elias Goikouria zuzendariari. Ondoren, orogarri pare bat eman zizkieten, bost urteotan egindako lana eskertuz. Opariak eta sorpresak egon dira, beraz. Eta tarta, eta kandelak. Benetan. Oholtza gainetik itzali zituzten. Kandelak bakarrik ez, gaurko musika erauntsiak sute bat ere itzaliko luke, pentsa. Baina ez luke amatatuko SuBerriko kideak musika egiten jarraitzea bultzatzen dituen gar hori. Ez behintzat gaur arratsaldean ikusi eta entzundakoa eta gero.

## Udalak Alboka lagunduko du

Alboka abesbatzak eta Lasarte-Oriako Udalak hiru urterako hitzaremena sinatu dute, eta, honenbestez, 3.750 euro inguru jasoko ditu urtean 2017, 2018 eta 2019 urteetan. Diru horrekin abesbatzak gastu orokorren zati bat ordaindu ahaliko du. Trukean, Alboka konprometitu da urtean zehar hainbat kontzertu ematen, besteak beste, jailetan eta Eguberrietan, meza batzuetan kantatzen, eta Olentzeron eta Korrikan parte hartzea.



TXINTXARRI

## XIV. Akordeoi Jaialdia egingo dute larunbatean

Zero Sette akordeoi orkestrak larunbatean egingo du XIV. Akordeoi Jaialdia. Beste urte batez, munduko akordeoilarik onenak bilduko dira Manuel Lekuona kultur etxera, Zero Sette Orkestrak eta udaleko Kultura sailak gonbidatuta. Horrela, musika zaleek akordeoien hiru sistema desberdinez gozatu ahaliko dute: bandoneonaz, trikitiaz eta akordeoiaz.

Nazioarteko zein etxeko izen handiko artistak etorriko dira Lasarte-Oriara. Uruguaiako Enrique Telleriak bandeona joko du. Kepa Junkerak, Sorginak taldeak lagunduta, berriz, trikitixa entzunaraziko du. Eta, azkenik, Alain Musichini eta Jazz Quartetek joko du.

Larunbatean, 19:00etan hasiko da emanaldia. Kalitate horren handiko kontzertua izateko, prezio oso baxura jarri dituzte sarrerak. Helduek hiru euro ordaindu beharko dute Manuel Lekuonara sartzeko. 16 urte arte doan sartu ahal izango dira.





Danok Kide elkarteko kideek Ixabel Zuaznabarrekin eta Gotzon Huegun eskultorearekin batera talde argazkia atera dute. TXINTXARRI

# Atsobakarrera itzuli da 'Argizaiola' eskultura

Hiru urte eta gero, argia itzuli da Atsobakar parkera. Bertan ikusi daiteke Danok Kide elkarteko lehendakari eta kooperante izandako Juan Jose Mendiluzeren omenezko 'Argizaiola' eskultura.

## Txintzarri

"Argizaiolaren leihotxoak aukera ematen digu ikusteko non dauden laguntza behar duten lasarteoriatarak". Juan Jose Mendiluzeren alargun Ixabel Zuaznabarren hitzak dira. Bueltatu da senarraren omenezko Argizaiola eskultura Atsobakarrera. Bertan metro eskas batzuetara dago Juan Jose Mendiluzeren omenezko lehen oroigarria: 1997an inauguratu zuten plaka.

Gotzon Huegun eskulturgile lasarteoriatarra arduratu da,

aurrekoa lez, Mendiluzeren eta Danok Kide elkartearen lan eskergari forma fisikoa emateaz. Harria eta marmol beltza erabili ditu horretarako. "Eskultura eleganteagoa eta iraunkorragoa egite aldera erabili ditut material horiek; Juanjoren eta Danok Kideren jardunarekin eta balioekin bat dator Argizaiola. Espero dut herriak bere egitea lan hau", azaldu du artistak. Eskerrak eman ditut lan hau egiteko ardura berriro emateagatik.

Danok Kide elkarteko lehendakari Julio Valentek, Mendiluzerekin

lan egindakoak, hainbat anekdota ekarri ditu gogora, ekitaldi hunkigarriari umore ukitua emanez.

Mendiluzeren alargun Ixabel Zuaznabarrek eskerrak eman dizkio Huegun eskulturgileari, Lasarte-Oriako Udalarari eta Danok Kide elkarteari. Ekitaldira bertaratutakoek txalo artean egin diote ongi etorria Argizaiolari.

Aipagarria da udal korporazioko alderdi ia guztietako (PP salbu) zinegotziak ere egon direla inaugurazio ekitaldian.



TXINTXARRI

## Illarraltzueta, lorez jantzia

Herritar ugari gerturatu ziren Illarraltzueta hilerrira asteazkenean zehar, zendutako ahaide eta lagunei bisita egin, eta, kasu askotan, euren hilobiak lorez jantzera. Eguraldi ezin hobea lagun, askok ez zuten galdu bertara oinez gerturatze aukera.



TXINTXARRI

## Beldurrez zoratzeko

Urriaren 31eko Halloween festak hartu zuen Atsobakarreko Caddie plaza. Jende eta giro onez bete zen plaza, eta haurrek euren moztorro beldurgarriak erakusteko aukera baliatu zuten. "Trukoa ala tratua", hori izan zen iluntzean gehien entzun zen esaldia.

**Ttakun**  
Kultur Elkartea

azaroa

## Tailerrak

### Jantzi tradizionalak egiteko ikastaroa (helduak)

Astearte eta ostegunetan, 15:30etik 17:30era. Emakumeen Zentroan. Bazkideak 22€, besteak 25€



### Magia tailerra (HH5etik LH2ra)

Astelehen edo asteartean, 17:45etatik 19:15etara. Anbulategi gainean. Bazkideak 12€, besteak 15€



## Ekitaldia

### Euskal Jaia 2017

Azaroaren 25a, larunbata. Okendo Plazan. egun osoz. Bazkarirako txartelak salgai Jalgin eta Ttakunen, 8€-tan



## Zozketa!

### Izan kantuz! Kantu liburua

Zaldibian "Baietz 26 ordu!" munduko errekorra gainditzeko erronka antolatu dute eta hau lortzeko osatu duten euskarazko kantu libiduma zozkatuko dugu Ttakuneko bazkideen artean! Euskarazko kantuen bilduma eskuratzeko, eman izena azaroaren 8a baino lehen! (harpidetza@ttakun.eus, 943 37 14 48, Geltoki kalea 4 edota sare sozialen bidez)



> Zer egin behar dut bazkide izateko?

943 37 14 48  
Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria  
ttakun@ttakun.eus



@TtakunKE



# Mobilizatzera deitu dute autobus gidariek

TSST eta Garayar autobus konpainien langileek salatu dute Gipuzkoako Aldundiaren aurreproiektua: 30 bat lanpostu suntsitzeaz gainera, zerbitzu publikoan "murrizketa bortzitzak" egingo ditu. Herritarren babesa eskatu dute zerbitzuak defendatzeko

## Txintxarri

Gipuzkoako Aldundiak aurkeztutako autobuz zerbitzuen proiektuak soka luzea ekarri du. Orain, langileek adierazi dute euren "kezka eta haserrea", eta herritarrei dei egin diete eurekin batera mobilizatzera. Izan ere, murrizketak aurrera ateraz gero, salatu dute TSST eta Garayar autobus konpainietako 30 langile kaleratu ditzaketela. LABeko ordezkariekin agerraldia egin zuten atzo, ostegunean, Hernaniko udaletxean.

Lanpostuak suntsitzeaz gainera, proiektuak gidarien lan egiteko era moldatuko luke, eta, honenbestez, ordutegi estuagoa eta atsedeen gutxiago izateko arriskua dute. "Jendea garraiatzen dugu. Gidariak atsedeen gutxiago badugu, istripuak izateko arrisku handiagoa izango da", ohartarazi dute gidariak.

Murrizketak bete-betean eragingo die herritarrei, eta, horregatik, gizarte zerbitzuen defentsarekin lotu nahi dute euren borroka. "Aldundian batzuei ahaztu egin zaie zerbitzu publiko batez ari garela. Gizartearen interes orokorra interes ekonomikoaren gainetik dago".



TSST eta Garayarreko langileak, ostegunean, Hernaniko udaletxean. TXINTXARRI

Langileek erakutsitako datuek azaltzen dutenez, ez dago arrazoirik zerbitzuak murrizteko. 2016an, eskualdean 97.652 igo zen biztanleria, eta 130.864 desplazamendu gehiago egon ziren. Gainera, Gipuzkoa da autoa gehien erabiltzen den herrialdea.

Gipuzkoako Aldundiak irailaren 8an aurkeztu zuen aurreproiektua, eta sindikatuek ez ezik, murrizketak eragiten dieten udal guztiek jarri dituzte helegiteak.

EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu alderdiek ere helegiteak jarri dituzte. Epeak oso motzak dira, abendurako aurkeztu behar baitute proiektua, eta espero da hurrengo urte hasieran indarrean jartzea.

Gidariak dagoeneko hasi dira mobilizatzen. Herritarrei proiektuaren nondik norakoak jakinarazteko esku orriak banatuko dituzte autobus geltokietan. Horrez gainera, azaroaren 15an protesta egingo dute Diputazioaren aurrean.

## Beldur Barik lehiaketarako epea, azaroaren 13ra arte

Laugarren aldiz antolatu dute Lasarte-Oria Beldur Barik lehiaketa, emakumeek jasaten duten bereizketa egoera salatzen. Epaimahaiak gazteen "arte adierazpen mota oro" onartuko du parte hartzeko, betiere indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan, errespetuan, berdintasunean, askatasunean

eta autonomian, eta erantzukizun kidetzan oinarrituak badira. Azaroaren 13ra arteko epea dago lanak aurkezteko. Horretarako, [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) webguneko formulario bat bete behar da.

Bi kategoriatan aurkeztu ahaliko dira lehiakideak. Lehenengo kategorian, 12-17 urte bitartekoak lehiatuko dira. Bigarrenen, 18-26 artekoak. Lehenengoentzat saria 300 euro izango da, eta, bigarrenentzat, 150.

## 'Llega800', 4 G-ak sor ditzakeen albo kalteak kudeatzeko

Espainiako Industria Ministerioak jakinarazi duenez, sakeleko telefonoen 4G konexioa erabilgarri dago dagoeneko Lasarte-Orian. Horrela, Telefonica, Vodafone eta Orange telefonia operadoreak 4G zerbitzua eskaintzen hasiko dira herrian. Lurreko Telebista Digitalaren frekuentzia batzuk

erabiliko ditu 4G bandak dibidendo digitala derizo-, eta baliteke hainbat arazo sortzea telebistan. Horregatik, telefonia eta telebistaren arteko bateragarritasuna bermatzeko *Llega800* egitasmoa martxan jarri dute operadoreek. Kaltea eragindako zonetan harremanetan jarriko dira erabiltzaileekin.

Operadoreen arabera, 4G bandak estaldura handiagoa eta abiadura handiagoa edukiko du.

## Komun publiko berriak erabilgarri, larunbatetik aurrera

Larunbatetik, bihurtik, aurrera bi komun publiko berri erabilgarri jarriko ditu Lasarte-Oriako Udalak. Herritar askoren aspaldiko eskakizuna da komun publikoena. Atsokabak eta Askatasuna parkeetan egongo dira komun publiko horiek. 114.544 euroko kostua izan du azpiegiturak.

## Islada Ezkutatuak elkartearen hitzaldi sortaren azkena

Islada Ezkutatuak elkarteak gaur, hilaren 3an, emango du 1936ko estatu kolpeari buruzko azken hitzaldia. *Beasain: ekintza militarren eta errepresio faxistaren hasiera Oriako bailaran* saioa eskainiko du Joxe Agustin Muguruzak: "Beasainen islatu zen hein batean gero Gipuzkoan gertatu zena".

# USURBIL KULTURALDIA 2017

Azaroaren 3tik 12ra

**azaroak 3, Ostirala 19:00**  
**Alejandro Tapia**-ren  
**OMENEZKO EKITALDIA**  
**ERAKUSKETA irekiera**

**azaroak 4, Larunbata 11:00**  
**Jakoba Errekondo**-ren  
**Antton Olariaga**-ren  
**LANDAREAK LANTZEN**  
**LIBURU aurkezpena**

**azaroak 5, Igandea 12:00**  
**KANTU BERTSO JIRA**  
**JON MAIA eta ALAIA**  
**MARTIN BERTSO GARIKIN**

**azaroak 5, Igandea 19:30**  
**Handia Filma**








# Sentsazio onak areto futbolean, puntuen faltan

Senior mailan ederki ari da lehiatzen Trumoi Eguzki. Estreinakoz aritu da Lasarte-Oriako kantxan, pasa den asteburuan. Ezin izan du punturik bildu, baina bai sentsazioak oso onak. 2-3 galdu arren, puntuak iritsiko direla konbentziturik daude

## Iñigo Gonzalez

Liga hasiera ez da samurra izan Trumoi Eguzkirentzat. Aurten sortu dute taldea, eta, normalean, debuta egiten dutenek komerkiak izaten dituzte kategoriara eta jokora egokitzeko. Ignacio Pozok entrenatutako taldearen kasua ez da izan hori. Esan bezala, liga hasiera ez da erraza izan beraiantzat, baina ez horrenbeste orain arteko bi norgehiagoketan egindakoagatik, arerioen mailagatik baizik. Idiazabal eta Samaniego Orixek sailkapenaren goialdean egoteko adina maila badute, eta Trumoi Eguzki bikain lehiatu du bien aurka. Puntuen zakua hutsik dute oraindik; sentsazio onena, beteta.

Samaniego Orixekin neurtu zituzten indarrak herritarrek, joan den larunbatean, Maialen Chourraut kiroldegian. Zaleen aurrean jokatu zuten aurreneko neurketa izan zen, baina hori-berdeak ez ziren urduri irten kantxara. Kontrakoa: lehenengo



Eguzkiko futbolariak baloi zatitu baten bila, joan den larunbatean. TXINTXARRI

30 minutuetan oso serio aritu ziren, kontzentratuta. Fruituak eman zituen euren ahaleginak, eta Lara Torinosek 1-0ekoa sartu zuen 15. minutuan. Haatik, atsedenaldira iritsi aurretik berdindu zuen kanpoko taldeak.

1-2koa sartu zuen Orixek bigarren zatian, baina etxekoek ez zuten amore eman, eta bina berdintzea lortu zuten. Ez zuen lortu, ordea, puntu baliotsu hori gordetzea. 2-3koa sartuta, Orixek irabazi zuen partida.

## Hil ala biziko partida du Intzak Lehenengo Mailari eusteko

Intzako bikoteak larunbatean jokatu du denboraldiko partida garrantzitsua, Tolosako Beotibar frontoian

### Txintxarri

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola Intzako pilotariak ez dute denboraldi oso txukuna egin. Elola atzelariaren lesio bat tarteko, sailkapeneko erdialdean egoteko aukerak galdu dituzte. Azken unean zuzenean mailaz jaitea sahiestu dute, baina promozioko partida jokatu beharko dute. Larunbatean arituko dira

Tolosa-Aurrera elkartearen aurka, 11:00etan, Tolosako Beotibar frontoian.

Aurreko asteburuan garaipena lortu zuen Lasarte-Oriako bikoteak, Oiartzunen aurka (11-22), eta sentsazio horiek aprobetxatu eta garaipena lortzeko itxaropentsu daude pilotariak. Partida hori irabazita, denboraldia salbatu dezakete, udaberriko txapelketekin hasi aurretik.

## Hiru domina Hego EHko txapelketatik bueltan

Hego Euskal Herriko saskibaloitxapelketatik domina banarekin itzuli dira herrira jokalariek. Judith Navarro kadeteak urrea lortu du, Eñaut Buiza infantilak zilarra, eta Aitor Anabitarte kadeteak brontzea. Hirurek Donostiako Easo taldean jokatzeko dute.

Navarro Arabako selekzioari irabazi dio finalean (77-49). Mutilen kategorian, Anabitarte brontzea kolporatu du, Nafarroari 85-55 irabazita. Buizak, berriz, zilarra, Bizkaiaren aurka 76-67 galdua.

## Errekor eta marka berri ugari, hasteko

Sasoi betean ekin diote Neguko Ligari Buruntzaldea IKTko igerilariak. Orotara, 26 marka pertsonal eta taldeko lau errekor berri ezarri dituzte aurreneko jardunaldian. Bidebietan egin dute igeri infantil, junior eta absolutu kategorietako kideek.

Konpetizio garaia hasi besterik ez da egin, baina maila oso ona eman dute kategoria guztietako igerilariak, infantilek bereziki. Azpimarratzekoa da euren lana: Gipuzkoako txapelketan lehiatzeko sei txartel poltsikoratu dituzte honezkerok.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### ERREGIONAL PREFERENTE A

#### Ostadar SKT-Oiartzun KE

Igandea, 11:30. Michelinen.

#### LURRALDE MAILA

#### Zumaia KE - Ostadar SKT

Larunbata, 19:00. Zumaian.

#### JUBENILEN OHOREZKO MAILA

#### Tolosa CF - Ostadar SKT

Larunbata, 17:30. Tolosan.

#### KADETEEN OHOREZKO MAILA

#### Ostadar SKT - Billabona KE

Larunbata, 17:45. Michelinen.

#### KADETEEN LEHENENGO MAILA

#### Ostadar SKT - Danena KE

Igandea, 10:00. Michelinen.

#### EMAKUMEZKOEN INFANTIL

MAILA, F-8

#### Ostadar SKT - Aralar Intxurre

Larunbata, 10:00. Michelinen.

### IBERDROLA LIGA

#### Espanyol - Reala

Igandea, 12:00. Bartzelonan.

#### EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

#### Oiartzun KE - Añorga KKE

Igandea, 12:00. Oiartzunen.

#### EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

#### Zarautz KE - Mulier CD

Igandea, 12:00. Astin, Zarautzen.

#### EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

#### Athletic - Alaves SAD

Igandea, 12:15. Lezaman (Bizkaia).

### ARETO FUTBOLA

#### ESTATUKO HIRUGARREN MAILA

#### Kukuiaga FC - Antonio Aroztegia Eguzki

Larunbata, 18:00. Etxebarrin (Bizkaia).

#### GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA

#### Ventanas Isu Leihok Eguzki - Lauburu

Aldaz

Ostirala, 20:50. Kiroldegian.

### GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

#### Inter Eder Kafetegia - Cecilia

Frutadenda Eguzki

Igandea, 12:00. Monsen, Donostian.

### SENIOR NESKAK

#### Trumoi Taberna Eguzki - Anoeta FT

Larunbata, 16:00. Kiroldegian.

### JUBENILEN GIPUZKOAKO LIGA

#### Bar Lasarte - Plazaola Aloña

Igandea, 11:15. Kiroldegian.

### KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA

#### Gael Elkartea - Balerdi Harategia

Igandea, 10:30. Harripilan, Legorretan.

### SASKIBALOIA

#### SENIOR LEHENENGO MAILA

#### Ostadar SKT - Astigarraga Mundarro

Larunbata, 18:00. Kiroldegian.

#### SENIOR HIRUGARREN MAILA

#### Aloña Mendi - Ostadar SKT

Larunbata, 16:00. Zubikoan, Oñatin.

### ERRENDIMENDU JUNIORRAK

#### Atletico San Sebastian - Ostadar SKT

Larunbata, 12:30. Aieten, Donostian.

### PARTIZIPAZIO JUNIORRAK

#### Ostadar SKT - Atletico San Sebastian

Larunbata, 09:00. Kiroldegian.

### ERRENDIMENDU KADETEAK

#### Bergara Soraluze - Ostadar SKT

Larunbata, 16:30. Labegarietan, Bergaran.

### PARTIZIPAZIO KADETEAK

#### Ostadar SKT - Askatuak

Larunbata, 09:30. Kiroldegian.

### INFANTIL HANDIAK

#### Oiartzungo Saskilagunak - Ostadar SKT

Larunbata, 12:15. Elorsoron, Oiartzunen.

### INFANTIL TXIKIAK

#### Zast Orio - Ostadar SKT

Igandea, 09:30. Karelan, Orion.

### PILOTA

#### ESKUZ BINAKA 1. MAILA

#### Tolosa Aurrera - Intza KE

Larunbata, 11:00. Beotibar frontoian.

#### ESKUZ BINAKA 3. MAILA

#### Intza KE - Arrasate

Larunbata, 16:00. Michelin pilotalekuan.

Arratsaldeko bosgarren partida izango da.

### PROFESIONALAK

#### Dario eta Merino - Arteaga II.a eta

Salaverri

Igandea, 17:00. Adarra pilotalekuan.

Arratsaldeko hirugarren partida izango da.

### ERRUGBIA

#### OHOREZKO MAILA

#### Hernani CRE - Santander

Igandea, 12:00. Landaren, Hernanin.

#### OHOREZKO B MAILA

#### Vigo RC - Babyauto Zarautz KE

Igandea, 12:00. Vigon (Galizia).



# Guerrero eta Ifrajen lurraldea da krosa

Hoki Guerrero hernaniarrak eta Ossama Ifraj errioxarrak irabazi dute bigarren aldiz Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. Lehen aldiz egin dute roller lasterketa: 59 patinatzaile lehiatu dira, eta Ilazki Zalakainek eta Ane Plazaolak irabazi dute

## Txintxarri

Herritarrei ezagunak egin zaizkie garaileen aurpegiak. Hoki Guerrero Hernaniko atletak bigarren urtez jarraian irabazi du lasterketa; eta Logroñoeko Ossama Ifrajek orain dela bi urteko balentria errepikatu du. Nolanahi ere, lehiar harago festa handia izan da krosa: ia 1.000 korrikalarik parte hartu dute. Giro eguzkitsuak lagunduta, herriko kaleak jendez bete dira lagunak eta senitartekoak animatzeko.

Lehia estua izan da, batez ere, gizonen kategorian. Lehenengo kilometroetan argi geratu da biren arteko lehia izango zela krosa, Ifraj eta Unai Arroyo tolosarraren artekoa. Lasterketa ia guztia elkarrekin joan dira, harik eta Ifrajek azken kilometroan eraso jo duen arte. Arroyo saiatu da Logroñoeko atletaren erritmoari eusten, baina ezin izan dio aurre hartu, eta bi segundora iritsi da helmugara. 31 minututan utzi du marka Ifrajek ibilbide berrian.

Hirugarren postua erabakitzeke ez da esprintik behar izan. Aitor Etxeberria igeldotarra sartu da minutu eta zazpi segundora, bakar-bakarrik. Hortik gutxira azaldu da lehen herritarra, bosgarren postuan: Raul Gomez, 33:14 minutuko denborarekin.



Ossama Ifraj, garaipena ospatzen, Okendo plazako helmugan. TXINTXARRI

Beteranoetan lehen postua lortu du.

Emakumeen kategorian ere lehia estua izan da, minutu bat baino gutxiagoren bueltan iritsi baitira hiru lehenak. Lasterketako bigarren zatian erabaki da lasterketa. Guerrero astean gaixo egon da, eta, horregatik, zalantza batzuekin hasi du lasterketa. Buruan eman du lehen zatia, Susana Martin oriotarrarekin batera. Erritmoa kontrolatzen

joan da, baina bosgarren kilometrotik aurrera puntu bat gehitu du, eta inork ezin izan du harrapatu helmugara iritsi arte (40:01). Iaz bezala, txapela jantzita itzuli da Hernanira.

Anabel Eleno herritarra iritsi da haren atzetik. Irabazleak baino minutu erdi gehiago behar izan du hamar kilometroak osatzeko. Ongi ezagutzen zuen ibilbide aldaketa Elenok, eta bigarren zatian estutu du.



Hoki Guerrero, pozarren, helmugaratzean. TXINTXARRI



Ilazki Zalakain, mutiletan garailea, hipodromo aldean, ihesaldian. TXINTXARRI

Zazpigarren kilometroan, hipodromoaren inguruan, aurreratu dio Susana Martini. Ezin izan du Guerrero harrapatu, baina bigarren postuarekin pozik azaldu da herritarra.

## Roller lasterketa

Patinatzaileen lasterketa izan da aurtengo berrikuntza nagusia. Nahiz eta eguraldi txarraren iragarpenak uxatu patinatzaile asko, Lasarte-Oriara gerturatu

direnak kirol festaz gozatu ahal izan dute. Ilazki Zalakainek irabazi du gizonetan, 17:24 minutuko denborarekin. Emakumeetan, berriz, Ane Plazaolak eskuratu du garaipena, 20:55 denborarekin. Talde lana aprobetxatuta lortu du garaipena Zalakainek. Tolosaldeko Irristaka Taldekoek lasterketa bizia egin dute, eta eraso jota bakarrik geratu da Zalakain, eta helmugaraino ihesaldian iritsi da.



**MILLA,**  
**ETXEEN SALEROSKETA**

- INMOBILIARIA
- ETXEBIZITZEN ADMINISTRAZIOA

Oriamendi 2, behea • Tel./faxa: 943 37 16 00  
**LASARTE-ORIA**



**Fernández**  
ehunak

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

*Nahi edo behar duzun huraxe  
aurkituko duzu gurean!*





# Irribarreak dira txiki eta gazteen dortsalak

Helduen lasterketa eta gero, etxeko gazteen txanda izan da. 'Korrika Festa' deitu ohi dio Ostadar SKTk lasterketa sorta horri, eta argi dago zergatik: markak eta garaikurrak baino garrantzitsuago, kirola egiten ongi pasatzea da helburua, irribarreak dortsaltzat hartuta

## Txintzarri

Ilusioa da haurtzaroko ezaugarri ohikoenetako bat, ahal izanez gero inoiz galdu behar ez dena. Ilusioa arnastu da Geltoki kaleko zuzenean, adin desberdinetako mila bat neska-mutil lasterka pasa direnean. Korrika Festa jendetsua izan da aurten ere, etxeko txiki eta gazteenak zapatilak jantzi eta kirola eginez ongi pasatzera animatu direlako.

Infantil eta kadete mailako neska-mutilak izan dira korrika egiten lehenak. Gazteen artean helduenak izaki, Okendotik abiatu eta hainbat buelta eman dizkiote ibilbideari, plazan

bertan helmugaratu baino lehen.

Gazteagoak zirenek, 5 eta 11 urte bitartekoak, Geltoki Kaleko zuzenean egin dute lasterka. Aurreneko metroak laguntzaileekin egin dituzte, eta bakarrik azkenak. Ederki gozatu dute lasterka egin bitartean, irribarreak dortsaltzat hartuta.

Mugikortasun urriko hainbat gaztetxok ere hartu dute parte, ikusleen txalo artean.

Urtero gertatzen da, eta baita 2017an ere: atletismoak eta, batez ere, kirol izpirituak, etorkizun oparoa dute Lasarte-Orian. Ez dadila haria eten.



Lasarte-Oriako mila bat haur eta gaztetxok ederki egin dute lasterka Korrika Festan. TXINTXARRI

*Eskerrik asko egun hau berezia egiteagatik!*

txintzarri



aldizkariak  
ESKU-ORRIAK  
liburuak  
katalogoak  
AGENDAK  
**kartelak**  
EGUTEGIAK  
papeleria  
koadernoak  
LOGOTIPOAK

INPRENTA  
offset eta digitala

DISEINU  
GRAFIKOA

DISEINU  
EDITORIALA

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


Zirkuitu Ibilbidea 2 · Pab. 1-2  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus  
www.antza.eus





	Ofiziala	Erreala	Km.ko
<b>XXII. LASARTE-ORIA BAI! KROSA</b>			
Raul Gómez Margallo	00:33:15	00:33:14	03:19
Jon Presa Herranz	00:34:07	00:34:05	03:24
Raul Tejado Muñoz	00:34:07	00:34:05	03:24
David Cordero Martin	00:34:46	00:34:46	03:29
Gorka Gil Martin	00:34:50	00:34:49	03:29
Antonio Mazo Alvarez	00:34:58	00:34:56	03:30
Jon Lorenzo Soria	00:36:17	00:36:15	03:38
Marc Bages Bosch	00:37:02	00:36:58	03:42
Xabi Carcedo Gonzalez	00:37:04	00:37:02	03:42
Ritxar Marcos Martin	00:37:16	00:37:15	03:44
Iban Urkizu Aldai	00:37:54	00:37:49	03:47
Luis E. Gallego Olmo	00:37:56	00:37:54	03:47
Aitor Otamendi Lizarazu	00:38:37	00:38:24	03:50
Beñat Los Arcos Ayerdi	00:38:46	00:38:40	03:52
Oscar Gandía Pascual	00:38:46	00:38:42	03:52
Mikel Garcia Muñoz	00:38:58	00:38:50	03:53
Asier Sanchez Iceta	00:39:26	00:39:21	03:56
Mikel Herrero Giraldo	00:39:46	00:39:30	03:57
Joseba Garcia Guereñu	00:39:46	00:39:40	03:58
Beñat Iriondo Yarza	00:39:49	00:39:45	03:58
Álvaro Sañudo Acosta	00:39:52	00:39:43	03:58
Raul Barrera Daniel	00:39:54	00:39:45	03:58
Markos Bujanda	00:39:58	00:39:52	03:59
Juan M. Marcos Molina	00:39:59	00:39:53	03:59
Asier Gorostegi Aliri	00:40:13	00:39:55	04:00
Jose M. Peña Asensio	00:40:19	00:40:15	04:02
Javier Martinez Urruzola	00:40:25	00:40:09	04:01
Alex Altuna Egitegi	00:40:29	00:40:21	04:02
Imanol Arteaga Aizbitarte	00:40:30	00:40:12	04:01
Jonpe Artetxe Mendizabal	00:40:30	00:40:11	04:01
Mikel Ubegun Lizaso	00:40:36	00:40:22	04:02
Javier Olazagoitia Rodriguez	00:40:40	00:40:30	04:03
Anabel Eleno Agustin	00:40:40	00:40:31	04:03
Ruben Mendez Ramos	00:40:40	00:40:29	04:03
Jon González Martín	00:40:47	00:40:28	04:03
Alex Garcia Rodriguez	00:40:48	00:40:28	04:03
Mikel Benito Basurto	00:41:02	00:40:55	04:06
Julen Ormazabal Ortega	00:41:09	00:40:49	04:05
Igor Sevillano Rodríguez	00:41:24	00:41:04	04:06
Jose Luis Iñorbe Aguirre	00:41:25	00:41:15	04:08
Pablo Alonso	00:41:28	00:41:09	04:07
Manex Altolagirre Intxausti	00:41:33	00:41:14	04:07
Asier Olmos Amondarain	00:41:37	00:41:14	04:07
Iker Navarro Etxeberria	00:41:44	00:41:20	04:08
Jose A. Tudero Muñoz	00:41:48	00:41:45	04:10
Jorge Garate Arrieta	00:41:51	00:41:48	04:11
Ekaitz Roig Aldaya	00:41:59	00:41:44	04:10
Haitz Mitxelena Martikorena	00:42:05	00:41:17	04:08
Alfredo Cidoncha Moreno	00:42:06	00:41:14	04:07
Javier De Sosa	00:42:08	00:41:56	04:12
Xabier Puertas Berasaluce	00:42:24	00:42:20	04:14
Imanol Galarraga	00:42:26	00:42:15	04:14
Iraitz Arruabarrena Jauregi	00:42:31	00:42:12	04:13
Marcos Mayán Das Neves	00:42:35	00:42:25	04:14
Iñigo Román Revuelta	00:42:41	00:42:27	04:15
David González Corchuelo	00:42:50	00:42:34	04:15
Carlos Blanco Sanchez	00:43:02	00:42:52	04:17
Antonio Urruzola Ortigosa	00:43:03	00:42:52	04:17
Julen Altuna Yeregi	00:43:04	00:42:54	04:17
Iñigo Ibarburu Zuriarrain	00:43:06	00:42:45	04:16
Jon Huici Sagastibeltza	00:43:14	00:42:54	04:17
Emilio Hernández Gonzalez	00:43:25	00:43:16	04:20
Juan Luis De La Mata Rodriguez	00:43:25	00:42:53	04:17
Ramon Altuna Vegas	00:43:30	00:43:02	04:18
Xabier Carbayeda	00:43:37	00:43:24	04:20
Maite Salazar Badiola	00:43:41	00:43:24	04:20
Jaime Blanco Sanchez	00:43:45	00:43:23	04:20
Alvaro Reyes Hernando	00:43:49	00:43:31	04:21

	Ofiziala	Erreala	Km.ko
Iñaki Mangas Ruiz	00:43:50	00:43:32	04:21
Aritz Solano Garcia	00:43:54	00:43:30	04:21
Alvaro Resa Gaiate	00:43:55	00:43:41	04:22
Iurgi Muñoz Pielago	00:43:59	00:43:45	04:22
Pablo Muñoz	00:44:00	00:43:45	04:22
Jose Ignacio Diez Anton	00:44:01	00:43:37	04:22
Joseba Iparraguirre Usarralde	00:44:04	00:43:35	04:22
Mikel Villarroya Macazaga	00:44:10	00:43:54	04:23
Oskar Martínez Carretero	00:44:18	00:43:53	04:23
David Mecerreyes Molero	00:44:23	00:44:12	04:25
Gema Tejero Cano	00:44:24	00:44:22	04:26
Hilario Sobejano Bienzobas	00:44:35	00:44:02	04:24
Luis Miguel Garcia Calleja	00:44:38	00:44:30	04:27
Jose Ramon Mendizabal	00:44:47	00:44:20	04:26
Javier Blazquez Blazquez	00:44:48	00:44:19	04:26
Rodrigo Gil Martin	00:44:49	00:44:37	04:28
Pablo Hernandez Sorondo	00:44:58	00:44:43	04:28
Ander Iriondo Azurmendi	00:45:05	00:44:55	04:30
Jose Angel Busto Iglesias	00:45:09	00:44:41	04:28
Miguel Angel Martin Azcona	00:45:09	00:45:00	04:30
David Rodriguez Cano	00:45:10	00:44:56	04:30
Julen Goenaga Sarobe	00:45:14	00:44:52	04:29
Álvaro Barroso Rivero	00:45:16	00:45:01	04:30
Joaquin Garcia Rivero	00:45:24	00:45:14	04:31
Ander Marcos Ugarte	00:45:27	00:45:12	04:31
Eduardo Rivas Clemente	00:45:32	00:45:06	04:31
Jose Miguel Gonzalez Felipe	00:45:34	00:45:25	04:32
Jose Mari Nuñez Lopez	00:45:36	00:45:18	04:32
Aitor Sanchez Vitores	00:45:36	00:45:13	04:31
Aitor Hernando Cobo	00:45:37	00:45:18	04:32
Salvador Tudela Seguer	00:45:52	00:45:42	04:34
Sergio Lucas Fernandez	00:46:02	00:45:44	04:34
Mikel Olaiz Garmendia	00:46:03	00:45:21	04:32
Joakin Brit	00:46:05	00:45:28	04:33
Asier Ávila Ruiz	00:46:05	00:45:28	04:33
Oscar Jiménez Simón	00:46:09	00:45:45	04:34
Imanol Carballes	00:46:20	00:45:43	04:34
Mikel Bermejo Felipe	00:46:33	00:46:10	04:37
Toño Perez Rodriguez	00:46:34	00:45:46	04:35
Andoni Mujika Calonge	00:46:40	00:46:18	04:38
Aitor Aristondo Aguirre	00:46:40	00:46:17	04:38
Manuel Carretero Rosado	00:46:43	00:46:20	04:38
Mikel Escribano Menendez	00:46:54	00:46:07	04:37
Iñaki Francisco Lopez	00:46:56	00:46:32	04:39
Andoni Burgos Igoa	00:47:12	00:46:57	04:42
Jokin Goenaga Miner	00:47:22	00:47:00	04:42
Asier Mercader Soroa	00:47:28	00:46:53	04:41
Miguel Angel Calle Prieto	00:47:29	00:47:24	04:44
Jon Caballero	00:47:29	00:46:54	04:41
Asier Elola Gaztañaga	00:47:32	00:47:11	04:43
Fede Otaegi Finó	00:47:36	00:47:23	04:44
Daniel Lopez Amil	00:47:36	00:47:06	04:43
Julen Bermejo Felipe	00:47:36	00:47:06	04:43
Julen Sasiain Salaberria	00:47:37	00:47:15	04:44
Jesus Duarte Caballero	00:47:41	00:46:57	04:42
Eñaut Azkarate Alkorta	00:47:46	00:46:49	04:41
Juan Carlos Fuciños Adan	00:47:48	00:47:03	04:42
Jose Luis Suarez Arias	00:47:48	00:47:03	04:42
Miguel Granado Nogales	00:47:50	00:47:16	04:44
Josu Olmos Amondarain	00:47:56	00:47:19	04:44
Mikel Arruti Landa	00:47:57	00:47:48	04:47
Gorka Lasa Azpiazu	00:47:58	00:47:49	04:47
Tomas Arruti Aldalur	00:47:58	00:47:48	04:47
Jorge Iglesias Centeno	00:47:58	00:47:13	04:43
Jon Ollokiegi Suberbiola	00:47:59	00:47:47	04:47
Pablo Izquierdo Vicente	00:48:00	00:47:25	04:44
Harriet Del Pardo Arruti	00:48:01	00:47:47	04:47
Ruben Arnaiz Garcia	00:48:02	00:47:54	04:47
Jonathan Seiseddos Gil	00:48:04	00:47:28	04:45



## Herritarren sail

Ibai Izagirre Agote	00:48:05	00:47:51	04:47
Mikel Corta Albizu	00:48:07	00:47:53	04:47
Jose Antonio Lasa Iraola	00:48:09	00:47:18	04:44
